

Euskaltzain agurgarriok, etxeko eta lagun maiteok, jaun-andreok, eguerdi on!

Egun gogoangarri hau dela-ta, atzo Gazteizko lagun batek galdera bat egin zidan esanez: "Oye Gorka, ¿habrás preparado bien el discurso para mañana, verdad? Eta erantzun nion. Pues sí, y además no me ha costado nada en hacerlo pues sólo lleva dos palabras: muchas gracias. Beraz, gaur hitza betetzera natorkizue: eskerrik asko, mila esker, esker mila.

Esker mila lehenengo eta behin Jean Haritschelhar jaunari, gaurdaino egin dudan 35 urteko ibilbide luzearen hastapenean, abegi ona egin zenidalako. Nire ikasturteak bukatu ondoren Reno Nevadan, doktoradutza egin nahian Bordeleko Unibertsitatera ate joka joan nintzen. Hemen dut bidelagun honek 1980ean idatzi zidan gutuna eta hau dio:"Le poste de lecteur de basque est libre en octobre 1980 et je tiens à vous le dire". Esker mila Jean, aspaldiko laguntza honegatik.

Urte batzuk beranduago 1996an, Haritschelhar jauna euskaltzainburu zela eta Juan Mari Lekuona euskaltzainburuorde, erakunde honetan sartu nintzen euskaltzain urgazle bezala. Badakit lehen asmoa oiartzuarraren bihotzean sortu zela baina baita ere Haritschelhar jaunaren onarpena eta babesa jaso zuela; beraz, berriro, mila esker.

Eta bukatzeko ataltxo hau, eskerrik asko gaur egungo euskaltzainburu den Andres Urrutia jaunari, neure 77 urtetako ibilbide luzearen bukaeran goatzeko parada zoragarri hau eskaini didazulako. San Sebastian egunean, Donostiako haurren danborren oihartzunekin batera, gure lemazainaren ahotik jaso nuen elkarte honetan beste urrats bat eman, eta ohorezko mailara igoteko abagunea. Benetan, harriduraz eta pozez beterik baietza eman ondoren, bapatean galdera hau egin nion: "Ni baino kandidatu hoberik ez al duzue? Eta bigarren sentipenak eraginda, eskerrak eman nizkion. Eskerrik asko bada gaur ere, Jean, Juan Mari Andres eta euskaltzain oso guztioi gure izendapenaren onarpen amultsuagatik. Neure burua ebanjelioko parabolako azken orduko langiletzat daukat baina azken hamarkadaotan buru-belarri lan egin dut gure baratzean.

Baita ere, egun gogoangarri honetan, Euskaltzaindiari opari bat egin nahi nioke: J.M. Lekuonak Añorgan idatzitako eskuizkribua ("Diario") eta bi eukal itzulpen eder eta interesgarri. Bere herriko udaletxeak eskainitako liburuan, *Juan Mari Lekuona Hurbiletik (1927-2005)* idatzi nuen bezala, urtekari hau zenbakitu gabeko eskuizkribua da, 116 orrialde ditu eta bakoitzeko 20 edo 22 lerro. Idazki honetan agertzen diren hasiera eta bukaerako datak honako hauek dira: 1957ko azaroaren 29tik 1958ko irailaren 12ra. Beraz, zortzi hilabete eta hamahiru egun guztira. Hogeita hamar urteko parrokiako apaizlaguntzaile honen arabera: "...Son los pequeños episodios espirituales de un sacerdote...Se poetizan mil detalles de mi vida sacerdotal. Todo es vivo y sincero." (37 or.) Zinez, eskuizkribu zoragarria da, garai hartako J.M. Lekuonaren bihotzeko sentipenak, eguneroko arazoak eta ametsak hobeto ezagutzeko tresna egokia.

Honez gainera, haren bi itzulpen oparituko ditut: *La Sinfonía de los dos mundos* (Bi munduen sinfonia). Jatorrizko testua, Helder Camara, Recife (Brasil) elizbarrutiko artzapezpiku ohiarena da. Bigarren itzulpenak, ordea, *Urtaroak* (Estaciones) izena darama eta Franz Joseph Haydn (1732 -1809) musikagile ospetsuaren obra bateko testua da. Honela, Euskaltzaindiko liburutegiko hutsune bat betetzen saiatu naiz eta bidenabar gure lagun maitearen bizitza eta lanak gogorarazten. Eskerrik asko bihotz-bihotzez.

Gorka Aulestia Txakartegi